## <u>Z JARRAIPENA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA</u>

1. <u>Bankuko ordainagiriak:</u> Seme-alabak zaintzeko kontratatutako etxeko langilearen kotizazioa Gizarte Segurantzari ordaindu izanaren bankuko egiaztagiriak, dirulaguntza eskatzen den hilabeteei dagozkienak.
2. Familia-unitatea osatzen duten gurasoak Gizarte Segurantzan alta emanda daudela eta diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean lan egiten duten sektorean zer lanaldi egiten duen egiaztatzen duen agiria:
    - <u>IDC Kotizaziorako Datuen Txostena</u>: **Besteren konturako langileak eta Araubide Orokorrean alta emandako bazkide kooperatibisten kasuan.**
    - <u>Autonomoen kotizazio-ordainagiriak:</u> **Norberaren konturako langileen kasuan (autonomoak).**
    - <u>Enpresa-ziurtagiria:</u> **Autonomoetan alta emandako bazkide kooperatibisten kasuan**.

### ELKARRERAGINGARRITASUNETARAKO BAIMENA EMAN BADUZU
### EZ DITUZU HONAKO AGIRI HAUEK AURKEZTU BEHAR:

3. <u>Eskabidea egin baino bi urte lehenagoko diru-sarrera fiskalei buruzko datuak</u>: Zergaldiari dagokion errenta-aitorpenaren fotokopia, edo, bestela, PFEZean kontuan hartutako diru-sarreren ziurtagiria, eskumena duen administrazioak egina. Dokumentazio hori egoera hauetakoren batean egonez gero aurkeztu beharko da:
    - Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitorpena EAEtik kanpo egin bada edo EAEtik kanpo egin behar bazen.
    - Azken hiru urteetan eskatzailearen nortasun-agirian aldaketaren bat izan bada (AIZa izatetik NANa izatera pasatu, izenaren grafia aldatu, abizenen hurrenkera aldatu bada, eta abar).
    - Identifikatzeko pasaportea erabili bada.

**OHARRA: Aurreko eskabideen aldean datu-aldaketarik egon bada, adierazi egin behar da eta agiri bidez egiaztatu.**